

HISTORIA

GUILLERMO ROA ZUBIA
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

istripuetatik abiatuta



Apollo programak bi esaldi ospetsu utzi zituen. Lehenengoa Neil Armstrongek esan zuen 1969ko uztailaren 20an, Ilargiaren azalera jaitsi zen unean: “gizakiarentzat pauso txiki bat da hau, baina gizateriarentzat salto handia da”. Bigarrena 1970eko apirilaren 13an esan zuen Jack Swigertek, Apollo XIII.a misioko astronauta batek, oxigeno-tanga batetik ihesa zutela konturatu zenean: “Houston, arazo bat dugu”. Javier Casado ingeniari aeronautikoak bigarren esaldi hori bihurtu du liburu honen izenburu; izan ere, astronautikaren historia istripuen bitartez kontatzen du liburu honetan.

Baikonur estazioan izandako lehen istriputik hasita (urte askoan sekretuan gordetakoa), NASAko jaurtigailuek izandako arazo eta istripue-tarainoko bidea egiten du (*Challenger* jaurtigailuaren istripua besteak beste, telebistaz ikusi ahal izan genuen hura). Tartean, arrakasta handiak ere izan zituen astronautikak. Horiek ere kontatzen ditu Casadok.

Arrakastak eta ustekabeak tartekatuta, nagusiki errusiarren eta estatubatuarren ibilbideei begiratzen die, baina ez haiei bakarrik. Txinako eta Brasilgo programetan izandako istripu batzuk ere aztertzen ditu. Are gehiago, kapitulu batzuetako gaiak lotura handiagoa dute misilen



Houston, tenemos un problema

Javier Casado

El rompecabezas

240x150 mm

ISBN: 84-934325-2-0

teknologiarekin espazioa esploratzeko ontziekin baino. Hala ere, ontzi horien aurrekariak izan zirenez, egileak garrantzia eman nahi izan die misilen ikerketari eta ikerketa horretan izan ziren istripuei. Bai armen garapenaren historia eta bai eta astronautikarena arazoz beterik egon ziren.

Batzuetan, istripu larriek buruz hitz egiten du, tartean hildakoak izan zituztenak; baina misio askotan izandako arazo txikiek ere hitz egiten du. Eta azken kapituluaren, epilogoan, hildako kosmonautei buruzko zurrumurruak aztertzen ditu.

Liburua ondo idatzita dago, eta irakurtzeko oso erraza da. Misioen xehetasun handiak ematen ditu, eta kontatzen dituen istripuen arrazoen balorazio bat ere egiten du egileak. Misio bakoitzean izandako arazoak erreferentzia garrantzitsuak dira hurrengo misioetan gauza bera gerta ez dadin, eta, horri esker, Casadok oso ondo eramaten du astronautikaren historiaren haria kapituluz kapitulu. ●